



## AMETSA BETETA

Umeak hirunaka  
datozenean nolakoa  
da esperientzia? 20



ITZALALDI ANALOGIKOA GAINEAN DAUKAGU  
**AURREA HARTU IEZAIOSU**  
TDT-dun TELEBISTA EROSTEKO AUKERA APARTA



PLASMA SAMSUNG 42"  
PS 42B430

**499€**



LG LCD 32"  
32" LG-3000

**399€**



LG LCD 37"  
37" LF-2510

**599€**



LCD PANASONIC 32"  
TX-L32S10

**579€**



PLASMA SAMSUNG 50"  
PS-50B430

**699€**



LG SAMSUNG 40"  
LE 40 B 553

**699€**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN ZAHARBERRITZE PLANA BUKATZERA DOA

**105€ ARTE-ko DESKONTUA**

arropa-garbigailua - ontzi-garbigailua - izozkailua - labea - hozkailua



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

## uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.** uztarrria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 112.a (2009ko abendua)  
**Urtea.** XI.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730792 / oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hileru  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Iban Etxezabal  
**Webgunea.** www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Foru Aldundia



**Uztarririk Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



## 2009KO ABENDUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



04



24



34

### iritzia

**Inkesta.** Gabonetako argi berriak gustatu al zazikizu? **13**

### mamia

**Pedro Azpiazu.** Ostalari ezagunak bere bizipenez hitz egiten duen liburua argitaratu du **04**  
**Klik!** Santotomask, jan-edanaren festa **16**  
**Bizi berria, hobea.** Besteei lagunduz lana egitea du helburu Nava-Jeevan elkarteak **24**

### jakiteko

**Bestaldetik.** Pako Aristi, 31 urte Urrestillan organo-jotzaile **34**


**Ba al dakizu** Lagun onak TE-k inoiz baino kadete gehiago dituela eta oraindik ez dutela babeslerik aurkitu? **Uztarrria**

## egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

**Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasozten, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide gara dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarriak 2009. urterako.



JOXE TAKOLO





ANGEL OTAEGI



IMANOL ELIAS



PATXI ALTUNA



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

# PEDRO AZPIAZU

autobiografia idatzi du

“Erraz jardun dut eta, gainera, oso gustura”

75 urtera iritsi eta bizitakoaren errepassoa egitea erabaki du. ‘Beltzaren egiak zurikeririk gabe’ liburua idatzi du eta pozik dago emaitzarekin. 📝📷 Mailo Oiarzabal

**K**oaderno eta boligrafoa hartu eta, tiriki-tarraka, hain gustukuak dituen “kontu zaharrak” paperean jartzzen hasi zen joan den udan Pedro Azpiazu *Beltza*, lehen Iazarra eta orain Loiola den hoteleko nagusia. Eta gustatu, hunkitzeraino; eta jarraitu eta, azkenean, liburua osatu du. Autobiografia, eta urrestildarrez.

## Barrua husteko beharra?

Beti izan naiz zerbait egitekoa, zerbait osatzekoa. Zahartuta, aspertze batean sartuta... Askotan, lehengo kontu zaharrak esaten hasten gara eta irten egiten zaizu beti zerbait. ‘Hik liburu bat idatzi behar huke’, batzuk eta besteak hasten zaizkizu eta, bueno, gogoa etorri zitzaidan, beti izan

dut-eta irakurtzeko afan pixkat. Pako Aristiri esan nion, eta ‘hasi hadi, lagunduko diat nik pixka bat’. Eta horrelaxe hasi nintzen. Eskribitzen ari nintzen bezala, irakurtzen hasi neu, eta ikaragarriko sentimendua sortzen zidan; gauza politak ziren, eta poztu egiten ninduten. ‘Zahartzarorako, hau duk entretenimendua!’, pentsatzen nuen neure artean. Gainera, gauzak askoz hobeto ulertzen nituela iruditzen zitzaidan, idatzira pasatutakoan. Azkenean ez dakit, 145en bat orri-edo zer dituen. Beste ehun bat ere, roilo pixka bat sartuta, ederki idatziko nituzke.

## Orduan, materiala geratu zaizu oraindik?

Bai, oraindik segituko niokela iru-

## ||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1934ko ekainaren 29an.

||| **Herria.** Urrestilla. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.**

Urte asko ostalaritzan eman ondoren, erretiroa hartuta dago.

ditzen zait, eta bilatu nezakela gaia. Erraz jardun dut eta, gainera, oso gustura. Lagunartea eta zer-nolako familia daukazu ikusteko eta baloratzeko balio izan dit, zer zorte izan dugun ikusteko. Eta sekula baino gusturago ibiltzen naiz orain, emaztearekin eta... Edozeinekin ibiltzeko ere, beste bide bat erakusten dizu. Pertsona ona izateko bultzada bat ematen dizu.

## Terapia bezala balio izan dizu, beraz?

Bai. Nik edozein zaharri gomenatuko nioke. Ez dut esaten liburua idaztea, baina halako entretenimendu pixka bat, bai. Ikusi baikoitzak, zer bizimodu daraman eta zer egin dezakeen oraindik, bere txikian. Gauza handiak egi-



Liburuaren azala.





Pedro Azpiazu, 'Beltzaren egiak zurikeririk gabe' liburuaren egilea, irribarretsu Loiola hotelaren atarian.

tea zaila izaten da gure moduan zahartutakoan, baita gaztetan ere. Baina, txikiak zuzentzen hasten baldin bazara, pixka bat, oso erraza da. Askotan, kate batean sartuta ibiltzen gara, eta...

**Beste bizipoz batzuk bilatu behar?**

Bestela, ezin duzu aurkitu non entretenu. Horrelako gauza batzuk egiten hasten bazara, nik uste dut ez dela harataino zaila. Atzo egin duzun ibilerarekin pentsatzen hasten baldin bazara gaur, atzokoa pixkat hobetzeko edo zerbait diferentea egiteko ideiarekin hasten baldin bazara, beti bilatzen da zerbait. Zerbait diferentea, zeure buruari ondo datorkiona egitea.

**Nork bere buruari erronka berriak jartzea, ezta?**

Bai. Gizonak falta handia edukitzen du hor. Garai batean ibili nintzen jabo salmentan zebiltzan amerikano batzuekin, saltsan. Arraten ematen zizkiguten hitzaldiak. Pertsona konpletua izatera joateko, zaila ez zuten ipintzen: egunean zehar egindako guztiak idatzita jarri, eta hurrengo egunean hari begiratu eta ea atzokoa

pixkat hobetu duzun ala ez duzun begiratu; eta norberari esan, 'gaur egin behar diat, ba, zerbait txikia'. Ez zela egin ezin zitekeen gauzarik, beti erantsiaz eta erantsiaz. Niri eman zidan hark halako zera bat; bestela oso kobardea nintzen. Bueno, uste dut lehengo lotsak iraun egiten didala oraindik, baina asko ireki nintzen.

**Norberaren bizitzakoak kontatzeko irekia izan behar, ezta? Asko kostatu al zaizu?**

Ez, ez. Orain, lagata egonda ere, atzera gogoia ematen zidan puntu batzuk berritzen hasteko.

**Idazten eskarmenturik ba al zenuen?**

Soldaduskan idatziko nituen nik azkenengo gutunak. Eta gero, aipatu ditudan Arrateko bileretan hartzen genituen apunteak. Haie txek. Eta, euskaraz, oso gutxi.

**Urrestildarrez idatzi duzu, ezta?**

Bai ba, geuk hitz egiten dugun moduan. Eta euskara maila hori ez dio aldatu Pakok [Aristi], Urrestillako eran utzi du. Berak esaten dit: 'Heu izango haiz

urrestildarrez estreineko liburua idatzi duena'. Poz eman zidan.

**Zenbat denbora eman dizu zure kontu horiek idazteak?**

Joan den uztailan hasi nintzen. Egunero ordu pila egiten nuen, eh? Gogoarekin hartu nuen eta, gero, esaten dizut, izugarrizko poza ematen zidan berak. Alabak eta, barre egiten zuten.

**Harrituko ziren, ezta?**

Ez dute ulertzen nolako laguntasuna eman dezakeen horrelako gauza batek; probatu ez duenak, ezin du jakin.

**Sekretu asko azaleratu al dituzu?**

“‘Hau duk entretenimendua, zahartzarorako’, pentsatzen nuen”

“Ez nuke nahi Liburuan jarritakoekin inor molestaterik”

Sekretuak? Ez. Jendeak nahi izaten ditu hortarakoak, astakeriak izanda ere. Baina sekretuak, ez. Sentimendu mailan, nik uste badauzkala... Zer esango dizut, aholkuak direla?... Ez nuke nahi inor molestaterik, liburuan jarritako gauzengatik.

**Galindo goardia zibila ere aipatzen duzu liburuan...**

Galindo? Askotan etortzen ziren, bera eta beste lagun bat, bi 'keridarekin'. Haiek, ordubietatik aurrera hotela irekita baneukan, seguru-seguru sartuko ziren; sukaldaria joan, urdaiazpikoa tomatearekin prestatuko nien, eta laurak aldera arte edo. Kafe ederra hartu, Remy Martin, Montecristo... Sekula pezeta bat ordaindu beharrik ez zuten edukitzen. Haiek orduan, ez dakit nik drogarik ibiliko zuten, baina zerbait kobratzera etortzen ziren behintzat: Mutrikura, Azkoitira... Astean buelta bat beti egiten zuten eta nik zabalik neukala ikusiz gero, bueno!

**Sekretuak kontatu dituzula jakingo du igoal...**

Bai, baina, horiek horrela dira.✘

# Gizartearen epizentroak

**B**etidanik sortu izan dit txundidura urteko azken hilabeteen ematen den esanahi eta ekintzen kontrasteak. Bartzuek galdetuko duzue, eta zer kontraste da ba hori? Ba alde batetik Gabonetako esanahi eta kutsu erlijiosu eta familia giroa. Eta bestetik, denoi egun beretsuetan sartzen zaigun kontsumismo edo diruaren kutsu hori. Loteria eta erosketak, diruaren inguruan antolaturiko zorakeria bailira bezala. Bi mundu edo unibertso bata bestearen aurrean, uztartuta agertzen direlarik, gorputz beraren bi buru balira bezala, eta osagarri bezala barneratuak guretzat.

Hau ez da hain arraroa, ze Gabonak ere, beste gizarte ekintza edo gertakari gehienak bezala, gure gizartearen bilakaeraren erakusgarri dira. Nork ukatu gaur egun ospakizun horren inguruko kontsumismoak iada garrantzi berdina (edo gehiago) hartu dutela erlijio kutsuak edo familia giroak baino. Familia elkartzea edo sinesdunentzat Kristoren jaiotza ospatzea bezain garrantzitsu bihurtu da gabonzarreko afarirako janari andana edota opari garestiak erostea.

Baina hau ez da beti horrela izan noski. Abenduak 24ko gau magikoaren esanahia oso bestelakoa zen Aintzinaroan. Zeltek eta erromatarrek, azken hauek beti ere ospakizun gose, neguko solstizioa ospatzen zuten egun horretan, hau da, eguzkiaren itzulera eta beraz egunak luzeago izatea.

Zelten kasuan bai eguzkiari eta bai ilargiari egiten zioten gurtza. Beraien bizimodua kontutuan izanda (nekazaritza zen ekonomiaren oinarria) eguzkiaren itzulera ospatzea guztiz logikoa zen, berak zihurtatzen baitzuen uzta berrien iritsiera. Eguzkia zen beraz bere gizartearen epizentro nagusia.

Euskal lurraldeak ere ez ziren salbuespena izan ospakizunaren esanahiaren hastapen hauetan. Euskal mitologiak Amalur zuen jainkosa nagusitzat eta bere bi alabak, eguzkia eta ilargia, ere gurtzen zituen. Kristautasuna,



markel mendizabal

III Gabonak ere, beste gizarte ekintza gehienak bezala, gizartearen bilakaeraren erakusgarri dira

X. mendetik aurrera, euskal lurraldeetan zabalduko da eta gaurdaino hemen neguko solstizioa gabonzar bezala ezagutzen da.

## Azpeitiko gabonetako usadioak

Abendua ere hilabete berezia da guretzat, azpeitiarrontzat. Nor ez da behin edo behin joan Parrokiara *naximentue* ikustera, bereziki denok behin eta berriz kolpeka ikusi dugun Periko Moxalari begirada bat botatzera. Azkenik, gabonzar egunean zehar herria kantari ibiltzen da, goizez haurrak eta arratsalde ez hain haurrak.

Baina, lehenago aipaturiko kontrastera itzuliz, egun horietan gure herria kontsumismoaren testigu da baita ere, jende gehiena erosketen amildegian eroriz. Ez ote da ba gertatu gure gizartearen epizentroa eguzkia izatetik

dirua eta kontsumismoa izatera pasa? Nik galdera hau botatzen diuzet jaki goxak dastatzen eta familia giroan poz pozik zaudentela erantzuteko. Dena dela, zalantzarik gabe, ospatu beharreko egunak datoz gure artera. Beraz, Eguberrioren eta Urteberrioren gutzio!!\*






# Elkarlana



Gipuzkoa Foru Aldundia  
Euzko Foruaren Foru de Gipuzkoa



 kutxa



**ADEGI**



GARRAIOA GIPUZKOA  
GIPUZKOAREN GARATZEA



Gipuzkoa Aurrera  
Auzumendua de San Sebastian



gipuzkoa **aurrera**

Elkarlanean, ilusioak, helburuak eta proiektuak aurrera.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-privatutik elkarlanean ari gara,  
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.

# Ez du ez buru, eta ez hanka!

**A**itortu behar dizuet nahiko memoria txarra dudala. Gaur ez naiz ondoegi akordatzen atzo zer egin nuen, ezta aurreko astean non eta zertan aritu nintzen ere. Baina badira data batzuk, egun batzuk, momentu batzuk memorian gordeak ditudanak.

2003ko otsailaren 19 eta 20a dira horietako bi. Azkar pasatu zaizkit urteak, baina ondo gogoan dut zer egin nuen egun horietan. Kazetaritza ikasten hasi berria nintzen, eta ikasle zintzo moduan Leioan izan nintzen. Otsailaren 19ko arratsean, berriz, Martxelo Otamendi zetorren berak zuzentzen zuen *Euskaldunon Egunkaria*-ren eta euskal prentsaren berri ematera, Azpeitira. Han aritu zen gizona hitz eta pitz. Ordura arte, egia esan, ez nintzen imajinatzen kazetari. Ez nuen inoiz pentsatu egunen batean prentsan edo irratian... lan egiteko ikasten ari nintzela. Baina egun horretan, bai. Hitzaldi hartatik irten eta Martxelok azaldutako prentsaren munduan neure burua imajinatuz joan nintzen etxera.

Nire imajinazioa, ordea, ez zen iristen gau hartan pasatu zen guztia imajinatzerara. Nola imajinatu gau hartan euskalgintzako hainbat arlotan buru-belarri zebiltzan hamar lagun atxilotuko zituztela (urrian atxilotuko zituzten, auzi ekonomikoarekin lotuta, atxilotuko zituzten Eneko Etxeberria eta Mikel Azkune herri-tarrak); nola imajinatu Martin Ugalde bera ere ataka horretan egongo zela; nola imajinatu guardia zibilek Martin Ugalde parkea hartuko zutela; *Egunkaria*-ko egoitzak itxiko zituztela; langileak (tardean azpeitiar ugari) bere lana ezin eginda geldituko zirela; atxilotuak torturatuak izango zirela...

Baina amets gaizto hori guztia oraindik ez da bukatu. Otsailean zazpi urte beteko dira *Egunkaria* kioskoan ezin dezakegula erosi; eta abenduan hasiko da bost auzipetuen kontrako epaiketa. Baina 'Egunkaria auzi'-ko bost auzipetuek zigorra dagoeneko ongi jaso dute. Ia zazpi urtean Espainiako Auzientzia Nazionalari begira bizi izan dira. *Eus-*



||||||| **ihintza agirretxe** |||||

||| **Norberak bilatu behar izaten ditu errealitatea leitzeko eta ulertzeko neurriko betaurrekoak**

*kaldunon Egunkaria* sortzeko eta kalitatezko egunkari buruaskea lortzeko eginiko esfortzu eta lana epaitu nahi diete, eta beraien ilusio eta indar guztiaz sortutako egunkari maitea, indarrez, itxi zieten. Bada nahikoa zigor epaitu aurretik betetzeko.

## **Errealitateari so**

Zaila da gaur egungo errealitatea ulertzea. Norberak bilatu behar izaten ditu errealitatea leitzeko eta ulertzeko neurriko betaurrekoak, eta zaila da parekoak bilatzea. Nik aspaldi bilatu nituen nireak: argiak, lausorik gabekoak, neurri-neurrikoak. Eta egunero so egiten diot errealitateari beraietatik.

Abenduaren 15ean hasiko da epaiketa, baina bost auzipetuen agonia hurrengo urtera arte luzatuko du Espainiako Auzientzia Nazionalak. Orain dela ia zazpi urteko marea urdin hura berpiztu eta ozen esan dezagun *Egunkaria*-k, behingoz, libre behar duela izan. Ohiuka dezagun epaiketak ez duela ez buru, eta ez hanka. *Egunkaria* libre! ✘







# Eibarko El Corte Inglés

## Moda bizitzeko beste estilo bat



Beste estilo bat janzteko eta azken joerekin atsegin hartzeko, bertoko eta nazioarteko firma handien diseinuak edo markarik eksklusiboak osagarri guztiekin: oinetakoak, poltsak, erlojuak, lurrinak eta kosmetikoak... Zeuretzat pentsatutako moda-estilo bat.




EGO GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA.  
HITZ EGIN GUREKIN: 901 122 122

[www.elcorteingles.es](http://www.elcorteingles.es) INTERNETEKO DENDA HANDIA

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



### **GORA.** Hemen euskaraz bizi gara.

Herritarrek euskaldun bezala bizi nahi izateagatik dituzten eskubideen urraketak salatzeko hainbat kutxa jarri dituzte udal eraikinetan. Bejondeiela! [Uztarrria](#)



### **BEHERA.** Belarriko minez.

Kirola egitea ez ote da osasuntsuago kiroldegian euskarazko irrati katea jarrita? Kiss FM edo Radio Euskadiren orde z jarri dezakete euskarazkoren bat... [Uztarrria](#)



Manolo Aizbitarte.

### ESANA DAGO

“Denon ahaleginari esker lortu dugu ziurtagiria, baina bide bakarra egoiliarrei zerbitzu hobea ematea da”

MANOLO AIZBITARTE  
San Martin egoitzako kudeatzailea

“Webgune bidezko marketin zerbitzuak herriko merkataritza sustatzeko erakuslehoi ona izan beharko luke”

MAIDER ZINKUNEGI  
Bertan-eko kidea

“Antzerkiaren barruko saltsa hori apartekoa da”

IMANOL ELIAS  
Antzerkigilea



kutxa



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



## Kirol Mahaia?

**G**aur egun, herri desberdinetan, ez Azpeitin bakarrik, kirolaren kudeaketa (instalazioak, harremanak, diru laguntzak...) herri politikarien esku bakarrik egon ohi da. Hauek sarritan, ez dira kirolariak izan, ez dira kirol erakundeetan inoiz egon eta beraien kirol errealitatearen ezagutza zuzenekoak ez izatea gutxi ez balitz, kirol eragile desberdinen iritziak ez dituzte kontuan hartzen. Kudeaketa honen balioarritasuna ezbaian jartzen du egoera honek nire iritzi apalean.

Azpeitian orain dela asko ez dela, kudeaketa modu hau gainditu asmoz, kirol mahaia

sortu zen, bertan politikariez gain kirol eragile desberdinen partehartzea bermatzen zelarik, erakunde federatuak eta kirolariak besteak beste. Zerbait berria den bakoitzean gertatzen den moduan, hasieran zalantzak bazeuden ere, oztopoak gaindituz martxan jarri zen, eta gutxienez herriko kirol desberdinetako jendearen elkarbilgune bihurtu zen, bertan egindako lanaren ondorioz bideratu direlarik besteak beste kirol medikuntza eta kirol formakuntza lanak. Kirola kudeatu kirolariek, hori da kirol mahiaren filosofia.

Azkenaldian kirol mahaia badirudi indarra

galdu duela eta bere martxa ez dela behar lukeen modukoa, sarri gertatzen den bezala, agintean dagoenak ez badu sinisten egiten hari denean, hori bertan behara doa zoritxarrez. Mahi honetan sinisten ez duten hoiak, herriko beste zenbait arlotan gertatu dena ikusi beharko lukete. Herriko festetan adibidez, non herritarren partehartzea beraien kudeaketan bermatu denean, herriko festak hobetoagoak edo txarragoak izan diren eztabaidan sartu gabe, herri festa aberatsagoak izan direlako partehartzeari dagokionean. Herria egin, herritarren partehartzearekin. ✘



aitor zulaika

### IKUSTEKOA!



### ▲ SEKULAKO JAIOTZA, ETXEKO ATARIAN

Jabier Aizpuru *Zabaletak* jaiotza ikusgarria jarri du bere etxeiko atarian, Toki-Alai etxean. Txikitan bere anai-arrebekin jaiotza baserrian jartzen zuela kontatu du eta etxeari "gabon usaina" emate aldera ohiturarekin jarraitzen du. Luzean lau metro eta zabalean metro eta erdi neurtzen ditu jaiotzak. Muntatzen "egun batzuk" pasa dituela adierazi du. 📧📧 Ainitze Agirrezabala ✘

## |||AZAROKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||||



### *Zorionak, Pedro Etxeberriari*

**OMENALDIA.** Azpeitiarrak harrotzat gaituzte; Gipuzkoako bilbotarrak ei gara. Madalenako Pedro ezagututa ez lukete halakorik pentsatuko. Gizon apala, lanean isila. Azpeitiko herriak badio zer eskertua. Oargiren babesean, frankismo garaian, euskal dantzak irakasten hasi zen. Horregaitik, 99 urte betetzean, bere ikasle izandakoak San Martin egoitzara joan zitzaizkion zorionak ematera. Bejondeizuela.



|||||donato unanue|||



### *Txalo Saria Eliasentzat*

**ANTZERKIA.** Bazen Imanoli omenaldi bat egiteko garaia. Baita, Azpeitiko herriak beste omenaldi sendo bat egiteko ere. Azpeitiaren eta Iraurgiren historiaren inguruan egin dituen lanak benetan aipatzekoak dira. Merituak gainezka ditu Imanolek omenaldi eder baterako.



### *Demokraziaren kontzientzia bizirik*

**EGUNKARIA.** Juridikoki eta politikoki onartezina da *Egunkaria*-ri gertatu zitzaiona eta gertatzen zaiona. Demokraziaren zutabeetako bat zapuzten da prentsaren askatasuna galaraztean. Ideiek ez dute, izan ere, inor hiltzen. *Egunkaria* ixtean horixe egin zuten. Honen aurka, he-

rriairen partetik erantzun sendoagoa espero nuen. Horregaitik pozgarria da Azpeitiko Gaztetxean auzipetuei laguntzeko antolatutako ekintza. Demokraziaren kontzientzia bizirik dagoela erakusten du. Askotan bezala, gure gazteek helduago garenoi erakutsi ederra eman digute.✘



## INKESTA

gabonetako argi berriak gustatu al zaizkizu?

 Ainitze Agirrezabala

JUANITA URDANPILETA

langilea



"Eskasak dira Alde Zaharrekoak. Beste leku batzuetan

politagoak daude. Lehen inpresioa hori da. Piztuta nola geratzen diren ikusi beharko da. Krisia dago, baina diseinu hobegokoak egitea bazegoen".

SAGRARIO GURRUTXAGA

langilea



"Krisian bagaude, krisian gaude. Argiak pobreak direla ikusten da,

baina egoera ere halakoxea da. Azpeitia herri handizalea da eta, oraingoan, udalak neurri ona erabili du. Ejenplua eman digu".

EÑAUT OIARZABAL

langilea



"Itxurakeria da. Hobe lukete argi guztiak kendu eta diru horrekin etxe bakoitzera aginaldo koxkor bat bidali. Gustura hartuko genuke urdaiazpiko eder bat eta itxura antzeko ardo botila bat".

IGONE GURIDI

langilea



"Argiak piztuta ez ditugu ikusi, baina hauek pobre xamarrek dira.

Ikusgarriagoak ziren beste urtetakoak. Sanjuandegikoak politagoak dira, Alde Zaharrean jarri dituztenak baino".\*

## Erleak eta polinizazioa (I)

Azaroaren 12an, Ingurugiro Etxeak antolatutako jardunaldien barnean *Zer gertatuko litzateke erleak desagertuko balira?* hitzaldi interesgarria eskaini zigun Martxel Aizpuru biologo eta erlezainak. Ni bezalako kalekume batentzat, ezezaguna zitzaidan mundu berri bat azaldu zidan, eta bi ordu eta laurdeneko jarduera, laburra gerta zitzaidan.

Landareak bere baitan, arratasun (polena) eta emetasun (obuluak-haziak eta ernaltze obarioak) ahalmek ditu, ondorioz fruitua emateko. Baina landare berekoak ezin dira uztartu, beste landare bateko polena behar dute ernaltzeko. Horretarako, polinizatzaileak erakartzen ditu barnean daraman nektar gozoa xurgatzera, eta barruratzean hustutzen dute kanpotik dakarten polena. Dena hustu arte ez diote irtetzen uzten, eta kanporatzean betetzen dira berriro landare hartan dagoen polenaz, ondoren beste batera garraiatzeko.

Polinizatzaile garrantzitsu bat haizea da, ikusi



higinio oartzabal

besterik ez dago udaberrian pinu polen horiz nola betetzen diren bazterrak Erleak, tximeletak (bere mihi luze edo espiritronpaz iristen dira erleek ezin duten lekuetara), kakalardoak, saguzaharrak, kolibriak...

Fruta bateko obulo denak ernaltzen ez badira, kanpotik ere nabaritzen da fruitua ez dela behar bezala osatu, itxura kaskarragoa du eta mikatzagoa da. Horregatik, polinizazioaren garrantzia, eta erleena bereziki ekimen honetan dutena. Erlauntzak dauden inguruetan energia handia dago. Baina, pozoiak, intsektizidak, gaitzak... medio, erleak desagertzen ari dira gure artetik, zoritxarrez, eta kezka handia sortu da zientzialari eta biologoen artean. Eta, hitzaldiaren izenburuko galdera bera egiten dute, zer gertatuko da ondorioz?

Horri buruz, eta erlauntza barrengo bizikera harri-garriaz, hainbat xehetasun hurrengo baterako utziko ditugu. Benetan interesgarria dela baiteritzot.\*

galdetzen hasita, Lagun onak futbol taldeak fitxaketarik egiteko asmorik batoe du, bigarren itzulirako?  Uztarria

## Gabonetako kanpaina

Duela bi hilabeteko alean, oker ez banaiz, Martuteneko espetxe inguruan, bere laguntza eskaintzen duten hiru azpeitiar genituen protagonista, alizkari honetan. Elizbarrutiko Espetxe Pastoraltzarekin bat eginik ari dira azken urteotan.

Beraiekin batera, gure bailarako taldeak, azken bost urteotan edo, Elizbarrutiko batzordeak urte sasoi honetan, Eguberri atarian egin ohi duen Kanpainarekin bat egiten du. Espetxean daudenei ondo datozkien hainbat gauza biltzen dira garai honetan, Eguberrietako jaiegunen inguruan beraien artean banatzeko.

Kanpaina honek, gainera, presondegiko bizitzaren alderdiren batean jartzen du urtero begia. Aurreko urtean, espetxeratuak eta euren familiak gogoan hartu bazituen, aurten espetxean dauden adin txikikoak ditu gogoan, *Adinez txikiak espetxean* goiburuak dioen bezala.

Eskaintzen zaigun gogoetan, bestek beste, ho-

kepa susperregi

noko hau diote: "Espetxeratuak... gizateria behartsuaren parte dira: zapalkuntza-kate baten azken kate-maila dira, bekatu sozial zabalago baten zeinu eta ondorio".

Pertsonak espetxean daude delitu bat burutu dutelako, baina itsu egongo ginatke delituen parte garrantzitsu baten atzean konpondu gabeko arazo asko daudela ikusiko ez bagenu. Arazo ia guztien atzean pertsona marjatuak daude, ia beti behartsuak. Kosta egiten da aitortzea, aukera-berdintasunaren ikur egin dugun gizartean bizi garelako, baina egia da, gizarteko desberdintasunek jendearen bizitza kondena bat bezala markatzen jarraitzen dute. Gure garai honetan dirauten arazo handiak, hau da, pobrezia, marjinazioa, kultura-eza, genero-indarkeria, droga, lapurreta, gaixo-mentalek jasaten duten atentziorik-eza... daude hainbat pertsona espetxera daramatzaten arazoaren ehuneko 80aren atzean.\*







## Bateria

**M**alkoak ugaritu egiten dira. Sentimenduzkoak, eta barre algararenak. Adi-adi izaten da entzulea sorpresaren zain. Eskuak libre, lehenbailehen ateraldiak txalotzeko. Eserlekuan postura egokia hartuta, arreta ez galtzeko. Bihotzez baten alde, baina besteak irabazita ere gustura, pozik.

Entzulearen gozamenaz aparte, badauka bertsoak zer eskaini. Indarra hitzean ipintzen du, arrazoiari arrazoiarekin nola erantzun saiatzen da. Pentsamolde bat sortzen du, eta pentsatzeko modua ere bideratzen du. Eta sormena da guztiaren abiapuntu. Zer esan,

||| **GUTUNAK** |||

## Ardoa ala garagardoa?

**L**anik egiteko gogorik ez, oztopoak jartzea, ezer antolatzeke bozondate eza... Lanik ez egiteko, gauzak oztopatzeko al gaude udalerean? Batzuk bakarrik egiten al dute lana gogoz? Azalpena errazagoa da Xabier. Udalaren diru sarrerak gutxi gora behera %20 jaitsi dira, ez daukagu nahi gurekin adina diru ekintza guztiak ohituta gauden bezala aurrera eramateko.

Zergatik bata bestearen orde? Xabier, Udal Gobernuak ez du gehiengorik, proposamenak ateratzeko beste alderdien onespina behar du. Arazoa aztertu genuen: irabaziak kirol talde batentzat eta 4 eguneko ekintza, ala irabazirik ez eta eguerdi bateko ekintza.

Hiru astera, dei bat jaso nuen. Zinegotzi batek esan zidan oposizioa hiru taldeak hitz egin zutela eta ardoaren eguna ospatzea erabaki zutela; diruaren egoera ikusita "ahalegin" bat egin behar genuela. Egoera aldatu ez zenez iritzi aldaketa hori ez zitzaigula serioa iruditzen mantendu genuen.

Zer egin behar dugu egoera honen aurrean? Edozein familietan diru sarrerak %20 jaisten badira, neurririk ez al dute hartzen? Ezin dugu berdin gastatzen jarraitu. Herriari egia esan behar diogu eta nahiz eta itxura txarra eman eta gaizki gelditu, batzuetan ezetz esan behar da.

Lehentasanak denon artean eztabaidatu eta erabaki beharko ditugu datorren aurrekontuan. Festa sailean zerbait kendu edo/eta murriztu beharko da zoritxarrez. Saiatuko gara garrantziko gauzak mantentzen, baina dena posible izango ez delakoan nago; baina ziur izan, ahal dugun guztia aurrera ateratzen saiatuko garela... gogo handiz.\*

||| **jabier altuna** ||| (Udaleko Festa batzordeburua)

nola eragin, esana nola josi... Burua ondo atontzen saiatu behar, bertsoan egingo bada. 14500 ikasle dabilta Bertsozale Elkartearen babesean ikastetxeetako ikasgeletan. Aparte bertso-eskoletan dabilzanak.

Euskalgintzaren pilak kargatzeko ere balio digu horretan aritzeak. Nik ez dut ohiturarik mugikorra kargatzeko bateria guztiz amaitu arte. Lagunak haserretu egiten zaizkit amata-tuta geratzen zaidalako. Ni mugikorrik gabe joango naiz BEC-era abenduaren 13an. Zer dagoen? Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala. Zortzi bertsolari, zein



||| **joxin iturriotz** |||

baino zein hobeak, giro ikaragarria, probatu gabe ulertzeko zaila den horietakoa, bertso hunkigarriak, negar eragiterainokoak... Denak euskaldunak, denak bertsozaleak, denak lagunak. Gure mundu txikia, egun horretan guztia biltzen duen mundutxo.

Euskal zaletasunaren bateria lau urterako kargatzeko oso aproposa. Eta nik mugikorra bezala guztiz itzali arte utziz gero, gutxienez hamar urterako balioko lukeena. Zorionez, ez dago horren beharrik, Txapelketa Nagusia lau urtero jokatzeko baita. Nik ez dut galduko euskalgintzaren bateria kargatzeko aukera.\*

## Bai, zinema Azpeitian!

**A**skotan entzun eta irakurri behar izan dugu Azpeitian ezin dela zinera joan; ez dagoela zinemarik, eta, egia esan, hori entzun eta irakurritako bakoitzean sutzen gara. Ta3. Azpeitiko Zine Klubeko kideok laugarren ikasturtea hasi genuen irailean. Eta gure ilusio eta indar guztia jartzen dugu herritarrei ahalik eta zinema onena eskaintzeko.

Bai, guk ere badakigu Azpeitian kultur azpiegituren kontua nola dagoen. Badakigu, guk ere, Betharram aretoa ez dela beste munduko ezer, baina besterik ezean ahal den bezala moldatu behar izaten da. Baina Betharrametan zinea botatzen da.

Guk urritik apirilaren bukaera arte bi astean behingo ostiraletan botatzen dugu zine ez komertziala. Askotan, Donostiako zine dotoretan lekurik izan ez duten zinema izaten da. Saiatzen gara zerbait ezberdina eskaintzen, gauza berriak probatzen, elkarlana sustatzen... eta zinema botatzen dugu. Ez dago Donostiara, Bilbora, Iruñeara... joan beharrik zinema ona ikusteko..

Aurten, adibidez, *Itsasoaren Alaba* euskal produkzioa bota dugu. Zinema handi eta dotoretan lekurik ez du izan, baina gurean bai. Gurean filma ikusteko aukera izan zen, zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan zen... eta 100 lagunetik gora etorri ziren. Eta ikasturtea aurrera doa. Zinema botatzen dugu, bai Azpeitian. Bai, bai, Azpeitian.

Gabonetan ere zinema eskainiko dugu. Bai, bai, Azpeitian. Zinema. Ume zein helduentzat zine-zikloak eskainiko ditugu. Umeen emanaldi erdiak euskaraz eskainiko dira; helduentzat filme ezberdinak eskaintzen ditugu. Bai, zinema Azpeitian. A, eta debalde!\*

||| **maite azpiazu** ||| (Ta3. Azpeitiko zine-klubaren izenean)



# Jan-edanaren festa

Sabelak ez du jairik izango hilaren 21ean, Santo Tomas egunean. Nahikoa txorixo eta talo izango da; baita zer edana ere. 🍷 Ainitze Agirrezabala 🍷 Jexus Artola

---





### ▲ **SAL TSA.**

Saltsa berezia izaten da Santo Tomas Egunean plazan. Jendea baserritarrez jantzita ateratzen da festara eta pintxoen, taloen eta otartekoen postuak dozena erditik gora egoten dira. Jan-edanaren festa ederra, benetan!

### ▼ **TXERRIKIAK, GOXO-GOXOAK.**

Santotomasetako jaki izarra da txerriak. Gizentzen eduki ostean, San Martin Egunean hiltzen dituzte. Herriko harakinek nahikoa lan izaten dute egun horretarako txorixoak egiten.







### ▲ **UROLA IKASTOLAKOAK LANEAN.**

Batzuk bapo jan eta edango badute, beste batzuk gogotik egin behar izaten dute lana. Alde ederra dago, mostradorearen alde batean edo bestean egon!

### ► **BASERRIKO ERREMINTAK ERE BAI.**

Azoka plazan barazki, lore eta fruituen erakusketa eta salmentaz gain, eskuareak egiten dituen Inazio Amilibia ere ikus daiteke. Herriko plazako postu festaz gain, hainbat ekitaldi izango da egun osoan zehar; besteak beste, pilota partidak, dantza suelto txapelketak, musika eta bertsolariak.

### ▼ **BERTAKO JAKIAK.**

Azoka plazan, ohi bezala, baserriko produktuen Udazkeneko Azoka Berezia eta erakusketa egingo dituzte.



### ▲ **BERTSOLARIEN JARDUNA.**

Bertsolariak ere ez dira faltako San Tomas Eguneko giroa alaitzeko. Eguardi aldera, bertso saioa izango da, plazan.







### ▲ TALO FESTA IKASBERRIKOEN POSTUAN.

Arto-irinarekin orea egin eta makina bat talo salduko dituzte tripontzi askoren gozamenerako. Txorixoa, hirugiharra, txokolatea... denetik sartzen diote taloari, laguntzeko. Argazkian, Ikasberri Azpeitiko Ikastolakoen postua.



### ▲ ZAZPI POSTU.

Aurtengo honetan zazpi talde edo eragilek jarriko dituzte postuak plazan: Ikasberri Azpeitiko Ikastolak, Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitiak, Iraurgi Ikastetxeak, Zaparraiek, Baigera Jubilatuen Elkartek, Itsasi Euskal Kultur Taldeak eta Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.\*

# Kolpean hiru

Umeak hirunaka datozenean nolakoa da esperientzia? Azpeitiko hiru familik diotenez dena txiki geratzen da, baina lana ez omen da hirukoizten. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

**B**at, bi eta hiru. Ekografian hiru ume ikusten direla dio ginekologoak. Sustoa hain da handia erreakziorik normalean zorabiatzea, negarrez hastea edo emagina adarra jotzen ari dela sinestu nahi izatea dira. Inor ez da kontsultan pozez saltoka hasten. Baten bila joan, eta kolpean hiru etorri. Hirukiak diren herriko hiru familiekin hitz egin du Uztarriak, umeak hirunaka datozenean esperientzia nolakoa den ezagutzeko.

2009-09-02

||| **Hirukiak.** Lander, Elene eta June.

||| **Gurasoak.** Iban Etxezabal eta Nagore Illarramendi.

“Familian, furgoneta umez beteta, ibiltzea zen gure ametsa”

Zoriontsuago izatea zaila da, edo ezinezkoa. Hainbeste desio izan duten ametsa konplitu zaie azkenean Iban Etxezabal eta Nagore Illarramendiri. Lander, June eta Elene hirukien aita eta ama izan dira. “Umeei emateko hainbeste maitasun nuen, ama izateko beharra

Aurten  
bi hirukiak  
ldi izan dira herrian;  
azkenekoz hirukiak  
jaio zirenetik  
hogeita lau urte  
pasatu dira

nuela”, adierazi du Illarramendik: “umez beteta, familian, furgoneta batean ibiltzea zen gure ametsa. Eta, gaur da eguna, esan deza-keguna, amets hori betetzea lortu dugula”.

Sei urte dira Iban eta Nagore ezkondu zirela eta, orain, kolpera familia ugaria dira. Guraso izatea erabaki zutenetik, ordea, arantzat betetako bidean egin behar izan dute aurrera. Elkarriz eskua emanda beti; esperantzarik inoiz galdu gabe. “Ezin genuen umerik eduki eta medikuarengana jo genuen laguntza

eske. Lau *In Vitro* egin genituen Donostian, Quironen, baina sekula ez ginen haurdun geratu”, kontatu du Illarramendik: “Ama izateko desira hainbestekoa zen, inguruan umeak eta tripa handiarekin zeuden emakumeak beste inor ez nituela ikusten”. Etxezabalek kontatu duenez, “prozesua luzea eta nekagarria da, psikologikoki oso gogorra, eta diru asko gastatu genuen”. Nolanahi ere, “prozesu gogor horren ondorioz”, beraien bikote harremana “gehiago lotu” dela kontatu dute.

Txinatik neskato bat ekartzeko adopzioarako tramiteekin hasi ziren orduan. Illarramendiren esanetan, Txinako ume horrek “asko lagundu” zien: “Laino beltz batean geunden eta ilusio berri bat eman zigun”. Bitarte horretan, gainera, haurdun geratu zen Nagore. “Sekulako sorpresa izan zen. Hilekorik ez zitzaidan jaitsi. Hura poza!”. Haurdunaldi “oso ona” zeramkien; baina, zazpi hilabeteko zegoela “umea galdu” zuen. “Biontzat oso-gogorra izan zen hura”.

Laguntzarik gabe haurdun geratu zela ikustean, intseminazioaren bidea probatu zuten Bilboko Gurutzetako ospitalean, eta ▶





Nagore Illarramendi eta Iban Etxezabal, Elene, Lander eta June besoetan dituztela, beraien etxeko egongelan.

haurdun geratu zen Illarramendi. Etxezabalen esanetan, "tratamendua askoz ere sinpleagoa" da. Illarramendik kontatzen duenez, haurdunaldia "oso polita" izan du, baina baita "gauzak okertzeko beldur handia" ere: "Ekografia eguna baino lau bat egun lehenago negar batean hasten nintzen. Nire ametsak han puskatuko ziren beldur nintzen. Drama bat zen niretzat". Ekografia egin eta hiru ume zituela esan zieten. Haurdunaldia arriskutsua zela eta "umeren bat kendu nahi" zuten galdetu zieten. "Guk garbi genuen, hirurekin aurrera egin nahi genuela. Amniozintesi proba egitea ere aholkatu ziguten, baina hiru poltsak zulatzea arriskutsua zela eta ezetz esan genuen, etorriko zirela etorri behar zuten moduan". Aurrera egin zuten.

### Erditu eta bi egunera ezagutu

Zesarea bidez atera zizkioten hiru umeak eta "errekuperaketa gogorraren ondorioz" jaio eta bi egunera ezagutu zituen seme-alabak, inkubagailuan egon baitziren. "Ama bezala oso gogorra da gainontzeko guztiek umeak ezagutu eta zuk argazkitan ikusi beharra. Es-

kerrak Ibani, lasai egoteko esaten zidan, ondo zeudela", adierazi du Illarramendik.

Naturaltasun osoz hitz egiten dute gaiaz. "Guk ez dugu inoiz arazorik izan honetaz hitz egiteko", dio Etxezabalek: "Guri asko lagundu digu gu bezala daudenekin hitz egiteak; beraiek nola dauden, nora joan diren, zer nolako tratamendua egin duten... Finean, sufri-mendua konpartitzea da eta ikustea bide horietatik ere haurdun geratzea badagoela".

Txikiak etorri direnetik, Nagorek eta Ibanek ez dute aspertzeko betarik: "Erritmo oso azkarrean gabiltza: hiru ordutik behin biberoiak eman, fardelak aldatu eta ahal dugunean siesta egin. Egia esan uste baino hobeto ari gara moldatzen. Hirurak oso trankilak dira. Lana da, baina ez da bider hiru", dio aitak.

Hirukiak etxera ekarri zituztenean, Illarramendik gogoan du txikiek izandako pasadizoak: "Beraien gelan umeak jazten ari nintzela, kontutan ari nintzairen eta 'aizu, egiozu parre txiki bat izeba Nagoreri', atera zitzaidan. Subkontzienteak huts egin eta nereak ez zirela uste nuen. Neure seme-alabei izeba esanez ari nintzen eta benetan, haien ama nintzela

konturatzean negar batean hasi nintzen".

Bikoteak dioenez beraien amek asko laguntzen diete. Etxezabalen esanetan, "bat ez bada bestea egunero etortzen dira esku bat botatzera". "Nire ahizpak ere hirukiak ditu eta, beraz, esperientzia ez da berria guretzat", dio Illarramendik: "gauzak nola diren ideia egiten duzu aurretik". Familiakoak ez ezik, bizilagunak ere "oso ondo portatu" zaizkiela diote.

Aita eta ama izatea desio eta haurdun geratzea lortzen ez duten bikote asko dago gaur egun. Sufrimendu guztiaren gainetik, "esperantzarik sekula galdu gabe, borrokatu eta ametsa konpliztea posible" dela adierazi dute Illarramendik eta Etxezabalek.

**1985-04-01**

||| **Hirukiak.** Maite, Patxi eta Ane.

||| **Gurasoak.** Luis Juaristi eta Marian Azkue.

**"zorabiatuta, negar batean atera ninduten kontsultatik kanpora"**

Bilbora ekografia egitera joan eta hiru ume espero zituela esan ziotenean Marian Azkue

► "negar batean, zorabiatuta" kanpora senarrak "helduta" atera behar izan zuen.

Hogeitabost urterekin ezkondu eta zazpi urte pasa ziren aita eta ama izan ziren arte. Luis Juaristik kontatzen duenez, "hasieran ez genuen seme-alabarik eduki nahi. Batera eta bestera asko bidaiatzen genuen. Gero, nahi izan genuenean, ez zela etortzen, ez zela etortzen... Azkenean, Bilbora joan ginen medikuarengana laguntza eske eta belaxe geratu zen Mariana haurdun".

Hogeitamabi urterekin izan zen ama Azkue: "Garai hartan oso berandu zen; nire lagun guztiak hogeitabi-hogeitabost urterako ezkondu ziren eta segidan umea izan zuten. Nik, ordea, ikasi egin nuen eta bi urtean Ingalaterran egon nintzen bizitzen".

Haurdunaldia "oso ona" izan zuela dio Azkuek: "Medikuek kontrol handiz jarraitu zuten dena eta sei hilabeteko nengoela lana laga eta lasai hartzeko aholkatu zidaten. Ezta pentsatu ere erantzun nien, eta lanean segi nuen dezente denboran". Erditu baino astebete lehenago ingresatu zuten Azkue. "Autobusa ematen zuen", dio senarrak: "atzetik begiratu ez zuen ematen haurdun zegoela; zabalean ez zen zabaldu, baina aurrera ez zen sekula bukatzen". Azkuek kontatu duenez, 48 kilo zen eta 72 kilo pisatzera iritsi zen.

Zortzi hilabeterekin jaio ziren Maite, Patxi eta Ane. 1.400 kg, 2.200 kg eta 1.700 kg pisatu zituzten, hurrenez hurren. "Ekografiatan Ane beste biak baino txikiagoa zela esaten ziguten. Kontua da, Maite sabelaren behealdean zegoela eta desnutrizio handia zuela. Medikuek ez ziren horretaz konturatu eta eskapada handia egin zuen. Azkenean urak puskatu zituen, bizirik aterako bazen".

### Nolako jaiotza, halako izaera

Maite Juaristik kontatzen duenez, duten "izaerak garbi erakusten du bakoitza zer ordentan jaio" zen: "Ni izan nintzen kanpora ateratzen auzena, beharra nuelako eta hiruretan mugituena naiz; Patxi jaiotzen bigarrena izan zen eta izaera ere Ane eta nire tartekoa du. Ane, berriz, lasaiena da".

Inkubagailuan hirurak egon baziren ere, Maitek "gutxienez" hiru hilabete egin behar ko zituela esan zieten medikuek. "Sekulako indarra zuen, ordea, eta hilabeterako etxean ziren denak", dio amak. "Katu txiki bat ematen zuen. Inkubagailuaren erdian utzi eta lau hankan ertz batera joaten zen. Sabelean Patxi eta Aneren ondoan egonda, babesa bilatu nahi izaten zuen", kontatu du hirukien aitak.

Bat-batean, bi lagun izatetik familia ugaria



1. Juaristi-Azkue familia: Maite, Patxi, Ane, Marian eta Luis.

2. Maite, Ane eta Patxi anai-arrebak oporretan ateratako argazki batean.

izatera pasatzean, "etxea, kotxea, dena txiki geratu" zitzaizela dio Marian Azkuek. Hirukiak izanda, lana hirukoiztu egiten den galdetuta, berriz, "ezetz" diote: "Ezin zara bakarrik moldatu, beti behar genuen norbaiten laguntza, baina ondo antolatuz gero moldatzen zara. Jendea izaten genuen beti etxean. Senarraren amak asko lagundu zigun, baita nire ahizpa gazteak ere".

Umeen heziketari dagokionean, "haien etxean zegoena denena zela" dio Azkuek: "gure etxean sekula ez zen esaten hau nerea da, baina jolas-parkean ere uste zuten dena denena zela eta ezin zuten ulertu beste norbaiten bizikleta hartzera joan eta hau nerea da entzutea".

Hamazortzi urte arte ikastolan ez ezik, lagun artean ere elkarrekin ibili izan dira Maite, Patxi eta Ane. "Gutako batekin sartzen baziren, beste biak azaltzen ziren, ijitoak bezala defendatzen", kontatzen du Patxi: "Hirurok eguna goizetik petralduta hasi eta ikastolan ere askotan entzun behar izan dugu 'hi, etxeko gauzak etxean utzi!'. Batekin haserretzea, hirurekin haserretzea zen". Azterketa garaian ere, begiratu hutsarekin jakiten zuten elkarren berri. "Ahizpa edo anaia ezinean ikusi eta azkar asko pasatzen genion *txuleta* elkarri", dio Maitek.

Anaia eta ahizpa hor daudela jakitea "babes handia" dela dio Anek: "Badakizu beti hor daudela eta horrek segurtasuna ematen dizu. Esperientzia berriak bizitzeko garaian ere babes handia da".



1970-05-02

||| **Hirukiak.** Arantxa, Amaia eta Ixiar.

||| **Gurasoak.** Patxi Olabarria eta Ixiar Furundarena.

“negozioarekin jarraitzeko alaba bat eduki nahi nuen”

Aurretik hiru semeren ama izanda, laugarren-goia alaba izatea zuen amets Ixiar Furundarenak: "Familian Furundarena oinetako denda genuen, eta etorkizunean negozioarekin jarraituko zuen alaba bat eduki nahi nuen. Arantzazuko amari promesa egin nion, alaba bat ematen bazidan, Arantxa jarriko niola izena". Neurritz kanpo errezatu zuen, nonbait Ixiarrek; alaba bat ez, kolpean hiruren espe-roan geratu baitzen.

Umeak jaio baino hamaika egun lehenago





1. Ixiar Furundarena bere alaba hirukiekin: Amaia, Ixiar eta Arantxarekin.  
 2. Arantxa, Ixiar eta Amaia ahizpak, osaba Julio Olabarriak oparitutako kotxe-kapotan.



Parte oneko ezer ez zuela eta, amak herriko praktikantearengana, Jose Aranbururengana, eraman zuen alaba: "Aztertu ninduen eta Donostiako mediku batengana mugitu beharra nuela esan zidan. Hala, Donostiako Martin doktoarengana joan zen, senarrak lagunduta. "Auskultatu eta plakak atera zizkidan. Berehala deituko zidatela eta itxarongelan egoteko esan zidan. Zain geundela 'emakume gaixoa, emakume gaixoa' entzuten genuen. Batenbatek badu disgusturen bat, esan nion gizonari". Bitartean, berarengatik ari ziren medikuak. "Deitu ziguten barrura eta familiarik ba al nuen galdetu zidaten. Baietz, hiru seme nituela. Ba, iruditzen zitzaiola beste hiru zetozela. Sinestu ezinda begiratu eta esan nion: 'zer esan duzu?'".

jakin zuen hirukiak zituela, garai hartan ez baitzen ekografarik eta egiten. "Haurdunaldi oso txarra pasa nuen eta salda estarlusekin eta tea limoiarekin, beste ezer ezin nuen sartu", kontatzen du Furundarenak. Aurreko ernaldiekin alderatuta "hura zeharo desberdina" zela dio. "Sei hilabeteko nengoela, Valentina Agirre emaginari galdetu nion: 'nik ez ote ditut bikiak espero?'. Ezetz erantzun zidan, bakarria antzematen zidala".

Umeetako bat txiki xamarra zela eta igoal aurrera ez zela aterako esan zioten senarrari. "Neri, ordea, ez zidaten ezer esan. Segituan ingresatu beharko nuela esan zidaten, eta nik ezetz, lehenago etxea antolatatu behar nuela". Egoskorrean, etxera bueltatu zen. Erditzeko jarri zenean ere, Donostiara ailegatu zenerako medikuek gurpildun-aulkia atarian pronto

zutela dio Ixiarrek: "Ni ez nintzela han jarriko esan nien, eta neure kabuz, oinez sartu nintzen ospitalera. Lehengo mentalitatea!".

### Sanoak al dira?

Maiatzaren 2an jaio ziren Arantxa, Amaia eta Ixiar, Donostiako San Juan de Dios ospitalean. "Erditzeko gelan nengoela, gogoan dut oheburukoaren gainean gurutzea zegoela eta behin eta berriz galdetzen niola medikuarri ea umeak sanoak ziren. 'Emakumea, lasai, zoragarriak dira. Uste dut inkubagailurik ere ez dela beharko!', esanaz saiatu zen ni lasaitzen". Hirukiak izan arren, erditze normala izan zuen, ez zuten zesarearik egin beharrik izan. 3.500 kg, 2.950 kg eta 2.500 kg pisatu zituzten Arantxak, Amaiak eta Ixiarrek.

Hirukiei bularrak ez emateko aholkatu zion medikuak Ixiarri. "Esnea mozteko bi injekzio jarri behar izan zizkidaten". Lau hilabete bete arte farmaziatik erositako esne hautsarekin elikatu zituen alabak eta "ederki irabazi" zutela adierazi du. "Gastua eta lana handia zen. Orduan ez zegoen gaur egungo fardelik eta gasak erabiltzen genituen, zikindu ahala garbitu, lehortu eta berriz erabiltzeko". Familian jende-mordoa izanda, nekea arintze aldera neska gazte bat hartu zuen Furundarenak. Hirukiak "oso txintxoak" izan direla dio: "Goizeko bostetan goseak esnatzen zen Ixiar; ordua arte, lo egiten zuten. Jaiki, biberioia berotu eta Ixiarri ematen nion aurrena, beste biek zain egon behar izaten zuten".

Senarraren anaia Juliok neurrira egindako kotxe-kapota ekarri zien, hiru neskek elkarrekin paseatu zezaten. "Kozkortu zirenean, egun guztia kalean pasatzen zuten, eliz atarian jolasean".

Arantxa, Ixiar eta Amaia Olabarriak adierazi dutenez, "oso mimatuak" izan dira etxean. Hirukietako baten, Arantxaren, esanetan, "neska koskorak ginela, hiru anaia zaharrak eskolara joaterako orraztu egiten gintuzten". Euria ari zuen egunetan, berriz, aterkiarekin Iñigo anaia eskolara bila joaten zitzaiea ere ondo gogoan dute. Etxean sei seme-alaba izanagatik "sekula ezer" ez zitzaie falta izan adierazi dute.\*

**Amenabar**  
DENDA  
gortinak, ohazalak,  
edreoi nordikoak ...  
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

lentzeria  
mertzeria  
jose artetxe, 16  
nabar

IRENE ALTUNA  
LORADENDA  
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com

**JAZKI** moda  
Jose de Artetxe 10  
TIF: 943 81 17 69

# Bizi hobeia, berria

Besteei laguntzeak dakarren sentipen ona bilatu eta horren alde lan egiteko asmoa dute 'Nava Jeevan-Bizi berria' elkarteko kideek. 📌 Nekane Zinkunegi

**K**alkutara (India) egindako bidaia batean bizitako esperientziak bihotza hunkitu eta, lagundu behar diren sentimenduak bultzata, Indiako umezurztegietan gaixorik dauden bost haurren tratamendurako diru-laguntzak ahalbidetzea du helburu Azpeitiko, Zumaiako eta Debako hainbat lagunek osaturiko elkarteak. Filosofia honen nondik norakoaz galdetuta, honako erantzun du Kalkutan esperientzia nahiko hunkigarria bizi izan zuen lurre Eizagirrek: "Nire mutilak, Igorrek, Indiara lanera joan beharra izan zuen eta, bitartean, *Madre Teresa de Calcuta* Gobernu Kanpoko Erakundearen ibili nintzen lanean hiru urtean zehar. Garai horretan haur bat, Vidya, adoptatu genuen".

Dirudienez, umezurztegi horretan talasemia deituriko odoleko gaitza pairatzen dute hainbat haurrek. Hain zuzen ere, umezurztegi horretako arduradunarekin kontaktuan egon ziren adopzioaren inguruko tramiteetan-eta. Gaixotasunari dagokionez, odolaren substantzien desorekan oinarritzen dela esan daiteke. Hemoglobinarekin ohiz kanpoko ekoizpena dela eta, globulu gutxiago sortu eta gehiegi suntsitzen omen dira. Vanesa Cerrajerok adierazi duenez, honek, "nekea, arnasa hartzeko zailtasunak, ahultasuna..." dakartza. Bego Artolaren hitzetan, "gaixotasuna ez da Indiako kasu isolatua. Zerbait hereditarioa da, baina herrialde batzuetan gehiago nabaritzen da". Eta honen aurrean Karmele Pratek



1. Joy, bost urte. 2. Mampi, bost urte.  
3. Tathagata, sei urte. 4. Prasanjit, zazpi urte. 5. Manasi, hamar urte.

honakoa gaineratu du: "azkenean, arazoa ez da Talasemia soilik, zenbait kasutan, GIB positiboa edota HIESArekin elkartzen baita". Talasemia pairatzen duten bi haurrez gain, HIESArekin gaixorik dauden beste hiru haurtzan dituzte kontuan haseran aipaturiko bostek horretan.

## Bidaiatik hunkituta

Esan bezala, lurre eta bere bikotekidea Indian izan ostean nahiko hunkituta etorri ziren ikusitakoarekin. "Barrutik, bizi izan ostean, lagundu beharra sentitzen nuen eta egun elkarteko kide diren gainerakoei haurren egoeraren berri eman nien" aipatzen du. Honen ostean, euretako beste hainbat ere Indian izan ziren eta Artolak egoera bertatik bizitza oso ezberdina dela esan du: "hemendik argazkiak eta irudiak ikus ditzakezu, baina behin bertara joanda, kalean bertatik bertara ikusteak zirrara eragiten du, egia esan". Pedro Luengok ere, honen inguruan "bertan egonda bizi izateak, txip aldaketa" dakarrela dio. Eta behin egoera bertatik ezagututa, laguntzeko zerbait egin zezaketela otu zitzairen eta horretan dihardute orain.

Horretarako, ISSA elkartearekin dihardute lanean. Rebekak, lurreren ahizpak, esan duenez, "umezurztegien kudeaketaz arduratzen den elkarte bat da" eta eurei, elkartearen eta diru-laguntzak emateko prest leudekeen arteko bitartekaritza egitea dagokie. Bestal-





Goian, ezkerretik eskuinera: Esti eta Iratxe Korta ahizpak, Bego Artola, Iurre Eizagirre eta Pedro Luengo azpeitiarra. Behean, ezkerretik eskuinera: Rebeka Eizagirre, Belen Rodrigex, Karmele Prat eta Vanesa Cerrajerero. |||

de, Cerrajeroren esanetan, biltzen hasi ziren garaian, "elkarteko estatutuen zehaztapenak eta paper-kontuak argitzea" zegokien lehenik. Behin hori martxan jarrita, "kanpora begirako lanketan murgiltzeko beharra" ikusi zuten. Eta horretara datoz Karmele Pratek gaineraturiko lehen bi ekimenak: "Abenduaren 19an, Zumaian izango den ekimen bat gure filosofiaren babesle izango da hasteko. Bestetik, Santo Tomas egunean, Azpeitian postutxo bat jarri nahi dugu, jende asko ibiltzen dela aprobetxatuz, gure asmoak ezagutzera emateko eta jendea laguntza ekonomikoa ematera animatzeko". Cerrajerok adierazi duenez, "ez da Santo Tomas eguneko ohiko postua izango, jertseak, kamisetak eta gisako materiala izango dugu guk salgai eta baita interesa duenari azalpenak emateko prestutasuna ere soberan".

Talasemia tratatzeko, "hileroko odol-transfusioak" erabiltzen direla adierazi dute. Luengok honakoa dio: "tratamendu hori gauzatzeko diru-laguntzak ezinbestekoak dira, eta gaur egun ere zenbaiti tratamendu aurrera ematea posible duten arren, diru-laguntzak gehituz gero, askoz errazagoa litzateke. Izan ere, hileroko odol-transfusioen beharra dute".

Momentuz, euren hasierako helburua jendea kontzientziatu eta hilean 5 euro ematera animatzea da. Rebeka Eizagirrek bere aldetik, haur bakoitzak izan ditzakeen gastuen inguruan hitz egin du: "Talasemiaz gaixorik dauden kasuan, hileroko odol-transfusioetarako 120 euro behar dituzte". HIESAren kasuan tratamendua, 72 euro kostako litzateke hilean. Kasu horietan, toki berezitueta egonaldia ere ordaindu behar baita.

### Bost euroko harpidetzak

Hala bada, umezurtegi gaixorik dauden bost haurrentzat laguntza ekonomikoa lortu nahi dute. Talasemia pairatzen dutenak, Tahagata eta Prasanjit mutikoak liriteke, sei eta zazpi urtekoak, hurrenez hurren. HIESA dutenen kasuan, Mampi bost urteko neskatua, Manasi hamar urtekoa, neska hau ere, eta Joy bost urteko mutikoa dira. Nava Jeevan elkarteko kideen helburua, haur hauen tratamenduak errazago ziurtatzeko dirua biltzea da. Hargatik, jendeari Indiako umezurtegietan dagoen egoeraz hitz egin nahi diote eta harpidetza gisako metodoak baliatuz, hilean bost euro ematera animatu. "Azken finean, haur hauen bizi-kalitatea hobetzen eta

bizi-itxaropena luzatzen arituko da laguntzen duen edonor" diote denek.

Jendartean kontu honek duen oihartzunaz berri, "oso zabaldua ez dagoen" zerbait dela diote. Oraingoz behintzat, "ingurukoek eta gertukoek baino ez dute honen berri" dio Bego Artolak. Hargatik, Santo Tomas egunean Azpeitian postutxo bat izatea inflexio puntu garrantzitsua delakoan dago Luengo: "Jendeari lehen kontaktua lortzeko behintzat baliagarria izango da, eta gerora, konpromezu zehatzak lortu ahal izateko ezagunengana, denda txikietara... jotzea etorriko zaigu".

Hala ere, laguntza ekonomikoa ematera animatzen den jendea, xehetasun guztien jakitun izan dadin saiaturiko direla azpimarratu dute. Azken finean, jende horrek ez baitu haurrekin kontaktu zuzenik mantentzeko aukerarik izango. Eta esker on gisa, "haurren egoeraren eta bilakaeraren inguruko txostenak egitea eta eurei zuzentzea" dagokiela adierazi dute.

Amaitzeko beraz, Zumaiaiko zein Azpeitiko ekimenetan parte hartzeko deia luzatu dute Nava Jeevan-Bizi Berria elkartetik. Ezer gutxirekin, Indiako hainbat haurren bizi aldatzea lor daitekeelako. Iurre Eizagirrek zioen gisan: "Badute nahikoa umezurtegi egon beharrek, gainera, gaixotasuna jasan eta gainerako haurrek normaltasunez egin ditzaketen eguneroko gauzei, txoko batetik begira egoteko". \*

||| "Tratamendua gauzatzeko diru-laguntzak ezinbestekoak dira; izan ere, hileroko odol-transfusioen beharra dute"

PEDRO LUENGO [Nava Jeevan elkarteko kidea](#)



# ondo pasatu santo tomasak

udazkeneko azoka berezia baserriko produktuen erakusketa eta salmenta





||| jaione unanue |||



||| leire goenaga |||

# Etsaiaren egonezina

**L**eire Goenaga. Ez dun giro Euskal Herrian!

**Jaione Unanue.** Espainia eta Frantzia alde-rik gogor ari ditun erasotzen, gaueko ordu txiki-tan batez ere.

**Leire.** Zerbaitegatik zauden egonezinik eta urduri, asko dutelako galtzeko agian?

**Jaione.** Dena dun delitua, kolaborazioa, goratarrea, pertenezia... Baina, zein dun benetako delitua?

**Leire.** Hemen delitu bakarria Euskal Herria askapenerako bidean jartzea dun, honi zioten nonbait neurtu ezineko beldurra. Horregatik zagon horrelako eraso zaparrada.

**Jaione.** Hainbeste aldiz entzundako udazkenera iritsi gaitun, denen gustukoa ez itxuraz, eta pasatuko gaitun negura ere. Baina ez dinat udaberri gabeko urterik ezagutzen.

## Abendua auzitegian

**Leire.** Espainiako indar armatuak Azepeitan ere izan ditun bisitan. Eta saiatu ditun gazte bat heurrekin eramaten. Eutsi gogor!

**Jaione.** Bai, ez dun ez lehenengo aldia. Eta azkena balitz hobe.

**Leire.** Azkenean uste baino lehenago jarri behar dinagu Madrilerara begira.

**Jaione.** Bai, lehen ere abendua konpleto zagonan, epaiketaz beteta.

**Leire.** Hainbat herritar Madrilgo Auzitegi Nazionalerako itxaron zerrendan ageri ditun eta. Hik ere tamalez ondo ezagutzen dun.

**Jaione.** Egia esan 'con estrella' jaiotakoa naun. Inkomunikazio egoera bizi gabe iritsi nindunan bertara nire kabuz. Gutxi batzuek bakarrik esan dezakete hori.

**Leire.** Maiderrri eman zioten zita, sei urte eta gero. Abenduaren 9an hasiko dun epaiketa.

**||| JAIONE.** “Dena dun delitua, kolaborazioa (...) Baina, zein dun benetako delitua?”

**||| LEIRE.** “Delitu bakarria Euskal Herria askapenerako bidean jartzea dun”

**Jaione.** Egunkaria-ko kideek ere abenduaren 15erako ditun txanda emana.

**Leire.** Udalbiltzako lagunei iritsiko omen zaien hurrengo, tartean Mireni.

**Jaione.** Eta non ditun eskubide guztiak guztiontzat esanez dabilzan guzti horiek?

**Leire.** Denok ez dinagu berdin ulertuko eskubide hitza. Edo guztiontzat orde batzuentzat izan beharko luke zenbaiten lema.

**Jaione.** Badinagu gabon hauetarako Olenzerori zer eskatua.

**Leire.** Beno. Batzuk behintzat erantzungo dinagu. Abenduaren 12an herrian badinagu horretarako zita.

**Jaione.** Hala ere ezinbestekoa dun lanean jarraitzea. Hori dun erantzunik onena.\*



# Lau egun, lau proiektzio

Abenduaren 15etik 18ra Mendi Astea antolatu du Lagun Onak mendi elkarteak. Lau proiektzio eskainiko dituzte eta herriko eta kanpoko hainbat mendizale ariko dira hizlari.  Ainitze Agirrezabala

**A**urten ere, San Tomas egunaren aurretik antolatu dute Mendi Astea Lagun Onak Mendi Bazkunakoek. Hilaren 15etik 18ra bitartean lau emanaldi izango dira, guztiak Lagun Onak Mendi Bazkunaren Elkartearen.

*Pirinioetako negu zemarkaldia* emanaldiarekin abiatuko dute urteko bigarren Mendi Astea. Ritxar Manovel ariko da hizlari (20:30).

Hilaren 16an, *Zenbat eskalada, Kirgiztango granitozko horretan* proiektzioa ikusi ahalko da, Igor Mendizabalekin (20:30).

Ostegunean, ordu berean, *Hego Amerika tandem batean* proiektzioa eskainiko dute. Hizlariak Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe izango dira.

Azkenen proiektzioan, abenduaren 18an, bi azpeitiarrek, Josu Sansebastianek eta Pedro Mari

## III DATUAK

III **Zer.** Mendi Astea.  
III **Eguna.** Abenduak 15etik 18ra (asteartetik ostiralera).  
III **Ordua.** 20:30/21:00  
III **Tokia.** Lagun Onak M.B. Elkartearen. III **Antolatzailea.** Lagun Onak M.B. eta Azpeitiko Udala.

## III MENDI ASTEA

**4** **proiektzio emanaldi.** Lau egunetan lau emanaldi ikusteko aukera izango da, eta guztira, sei hizlari ariko dira.

**2** **azpeitiar.** Hilaren 18ko proiektzioan bi herritarrek hartuko dute parte: Josu Sansebastianek eta Pedro Mari Aizpuru 'Txepetxa'-k. ✳

Aizpuru *Txepetxa*-k, hartuko dute parte. *Azpeitiko XIX. Helduen ibilaldi neurtua 09* emanaldia eskainiko dute 21:00etan hasita.

## Urteko batzarra eta afaria

Mendi Astearekin bukatzeko, abenduaren 19an, larunbatean, bazkideek urteko batzar nagusia egingo dute, elkartearen bertan. Ondoren, afariaz gozatuko dute bertan bildutakoek. ✳

## III BESTERIK

**1** Txapelen omenezko jaialdia

Sei bertsolari entzuteko aukera izango da: Jon Maia, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Uxue Alberdi eta Eneritz Arzallus. Jokin Urangak egingo ditu gai-jartzaile lanak.

III **Eguna.** Abenduak 18 (ostirala). III **Ordua.** 22:30

III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.

III **Antolatzailea.** Erriarraitz eta Lanku.

**2** Betagarriren kontzertua

Herriko tabernariak antolatuta, Gasteizko Betagarri musika taldearen eskutik ska eta rock doinuekin dantzatzeko parada izango da.

III **Eguna.** Abenduak 19 (larunbata). III **Ordua.** 22:00

III **Tokia.** Plaza.

III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

**3** San Silbestre lasterketa

Urtea ondo bukatu asmoz, adin guztietako herritarrei zuzendutako lasterketa egingo da, urte zahar egunean. Herri barruko zirkuitoan egingo da eta 8,3 kilometroko luzera izango du ibilbideak.

III **Eguna.** Abenduak 31 (osteguna). III **Ordua.** 10:30

(eskola-umeena) 12:00

(lasterketa nagusia). III **Irteera eta helmuga.** Plaza.

III **Antolatzailea.** Azkoitia-Azpeitia Xeye Atletismo Taldea eta Azpeitiko udala. ✳



*Azpeitiko XIX. Helduen ibilaldi neurtua 09* emanaldiko argazki bat. III **Josu San Sebastian**

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



# Uztarria ere 'Facebook'-en

Uztarriak badu bere kontua 'Facebook'-en. Mezuak idatzi, albisteen gaineko iruzkinak egin eta argazkiak eta bideoak igotzeko aukera eskaintzen du. Egin zaitez zu ere Uztarriaren lagun!  Ainitze Agirrezabala

**U**ztarriak ere sortu du bere kontua Interneteko *Facebook* orrian: Uztarria Azpeitiko Herri Ataria.

Taldekide guztiei mezuak idatzeko aukera eskaintzeaz gain, bertan argitaratutako albisteen irakurri eta haien gaineko iruzkinak egiteko ere tresna baliagarria da. Aukera horiez aparte, Uztarriako hormara argazkiak zuzenean igo eta bideoak gehitzeko aukera dago. Gertakarien agenda bat ere badago.

Modan dagoen Interneteko sare soziala da *Facebook*. Etorkizunean potentzialtasun handieneko web aplikazioa izango dela esan daiteke.

Beraz, egin zaitez zu ere Uztarriaren lagun!\*

||| Albisteak irakurri eta haien gaineko iruzkinak egiteko tresna baliagarria da

## ||| INKESTA |||

**Hartuko al duzu A/H1N gripearen txertoa?**

Bai. %3,23.

Ez. %93,55.

Agian. %3,23.

||| **Oraingo galdera.** Euskal Herriko Bertso Txapelketako finalera joango zar?



Uztarriaren Facebook-eko kontua.


## ||| EFEMERIDEAK |||

# 1793

**Soroetan lapurretak.** Herritar guztiei gauz herritik ateratzea debekatu zitzaien. Agindua betetzen ez zuenari lapurretaren erantzukizuna egotziko zitzaion.

# 1854

**Inprimategia zabaltzeko baimena.** Inprenta irekitzeko baimena eman zion Pablo Martinezi Gobernadoreak.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

## ||| BIDEOAK |||



**Autodefentsarako deia.\***

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak ||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita



HITZ GEZIDUNAK

		Ugaztun haragijalea Herri baxenabartarra	Donostiako futbol taldea Behiaren arbaso	Giltzak Urrea	Baretu, bigundu Ditxolari	Erreakzio kimikoen adierazpen grafikoak
Urrikiak		Elizaren atala				
Longidako auzoa + IRUDIAN	Landare mota Nafarroako ibaia			Baratze Zuberoako mendia		
			Minberatua Berme, bahi			
Beste modu bateko Hezteko erak						Kontso- nantea Eguzkia
					Izotz, horma Hurritzaren fruitu	
Detektagaillu Amerikako laku handia				Sehaska Kontso- bustia		
		Antzinako lurraldea Uranioa				
Inausleak						

Egilea:  
Luma

\* Bizkaiko hiriburua

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudiotako elementuen izenak, denak neguarekin estu lotuak



T O S E P U I Z E H B I  
O K E K N D Z I R O E N  
I A K A T E I P O S R D  
H I A T S A S U K I O U  
A D U O K A I U T Z K E  
E R A B K N L K I N I H  
S E U T A A R E A I A L  
T Z P U R D T E N T E A  
G T I R A T E I O N U Z  
N L U S T X A L R H B I  
I A Z N I A T K A U E P  
K G U I A N X B K D E Z  
N O D R O O A A A P I A  
R L B U F A N D A U Z T



**SOLUZIOAK**

**HITZ GEZIDUNAK**

K	A	R	A	S	U	A	N	I	●	
A	R	U	R	E	●	E	R	I	E	
O	A	H	O	●	R	A	D	A	●	
I	L	●	K	A	R	E	Z	I	H	
Z	●	O	K	A	L	E	S	T	E	●
A	L	A	T	U	A	L	A	●	O	B
U	R	T	O	●	E	O	E	●	L	●
K	A	R	U	K	I	A	K	●		
E	A	Z	M	E	I	Z	U	R	A	
●	E	●	G	●	E	●	O	●		

**HIZKI ZOPA**

T	I	O	S	E	P	U	I	Z	E	H	B	
N	E	K	A	T	E	I	P	O	S	R	D	
O	U	A	T	S	A	S	U	K	I	O	U	
A	D	O	K	A	I	U	T	Z	K	E		
H	E	R	A	B	K	N	K	I	N	I		
L	S	E	U	T	A	R	E	A	I	A		
E	T	Z	P	U	R	D	E	N	T	E	A	
G	T	I	R	A	T	E	I	O	N	U	Z	
N	L	U	S	T	A	L	X	A	L	R	H	B
I	A	Z	N	I	A	K	A	V	E	P		
Z	E	D	E	X	B	K	K	D	Z			
A	P	I	A									
T	U	Z										

**ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?**



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Abenduak 18 (ostirala) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZER DAGO SOBERAN/ZER DAGO FALTAN.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

**UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA**

**ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?**



**ESTALPEA MOTZAGOA DA**



**IRABAZLEA**



Olatz Lasa Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Olatz Lasa, saria eskuetan duela.

ETXEZ ETXEKO ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago



Larchago krintza 2006 GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO ARDO KARTAN

Krintza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

## Giharreko nekea

**G**iharreko ahuldadea indar faltari esaten zaio. Gure organismoak 501 muskulu ditu. Orohar, indar falta gaixotasun sistemikoengatik sortzen da: nerbioena edo zirkulazio-aparatuarena, baina denetik izaten da. Batzutan diagnostikoa oso zaila izaten da, traumatismoek, diabetek, bitamina ezak edo beste mila arazok sortu dezakete eta. Gaur egun, ekografoa edo erresonantzia magnetikoa laguntzailerik baliosuak dira diagnostikoa egiteko garaian.

Ez dugu ahaztu behar, askotan jatorria genetikoa dela, nahiz eta, beharbada, jubilatzeko garaia heldu arte, sintomarik ez azaldu; horrela gertatzen da *polimialgia reumatikoa* eta *miastenia gravis* kasuetan.

Askotan, tratamendu egokia eta arrakastatsua aurkitzen da, baina beste batzutan, baliabiderik gabe aurkitzen dira sendagileak. Kasu horietarako gogora datorkit ondorengo esaldia: *Sendagileak gutxitan sendatzen du, arindu dezentetan, baina beti kontsolatu egin behar du.*

Azken urteetan, gizakion genomari buruz aurrerapenak izan dira eta espero dugu hamar urteren buruan gai hauetaz jakintsuak izango garela eta gaixotasun hauek, denak ez bada gehienak, saihestuko ditugula. Hori bai, denok dakigu zer egin behar den gaixotasunaren jatorria tabakoa, alkohola edo botikak direnean.\*

||||||| **Julian bereziartua** |||||



## JOKIN URANGA bertsolaria



### 1. Bertsolari bat?

Joxe Agirre.

### 2. Kanturako laguna?

Ametz Arzallus.

### 3. Txapelketak ematen al dizu inbidiarik?

'No! kantatuko nitek ba', esaten dut. Uste baino gehiago ari naiz gozatzen.

### 4. Nork nahi duzu txapelketa irabaztea?

Onenak.

### 5. Nork irabaziko du?

Lujanbiok edo Egañak.

### 6. Harrobi ona al dago herrian?

Bai. Denak emanda gabilta Erriarraitzen.

### 7. Justua al da txapelketa?

Ez. Eguna, gaia, kanturako laguna... Norbere gain ez dauden kanpoko faktore asko daude.

### 8. BEC-era bai?

Bai, lanera seguruenik.\*

📧 Ainitze Agirrezabala

**ostadar optika**  
OPTIKOAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**AZKOITIA**

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Larnaldiak:  
943.15.16.40

**uztarria**

**PEUGEOT**

**AIZPURU AUTOAK**

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

**ORKATZ KULTUR ELKARTEA**

**Clamendi**

Gaiko Kale, 4 - Tfnoa, 81 13 49

**domusa**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



# **bertan** txartelarekin hainbat abantaila dituzu



## **%5eko** deskontua azaroan eta abenduan

**Puntuak diru txekeengatik  
trukatzeko aukera Nafarroako  
Rural Kutxa bulegoan**

**Puntu 1 = euro 1  
1.000 puntu = 10 euro deskontu  
bonoa elkarteko edozein dendetan  
trukagarria**

**Oraindik garaiz zaude  
atera ezazu**

**bertan txartela**





# Amari ezin ezetz esan

Urrestillako elizan 31 urte daramatza organoa jotzen. Ateo batentzat marka ederra. Erronka berria ere badu: margotzen ikastea.

 Mailo Oiarzabal

**I**dazle eta kazetari bezala da batik bat ezaguna Pako Aristi (Urrestilla, 1963). Musikari ere bada, ordea. Urrestillan, behintzat, elizako organo-jotzailearena da askok eta askok Aristiren curriculumean lehendabiziko tokian jarriko luketena. Ondo arrazoituta-ko erantzuna da, 31 urte baitira Jaunaren Gizakundearen parroikiko elizkizunetan organoa jotzen hasi zela.

Hasi, eta gaur arte jarraitu, ia etenik gabe. Uztekotan egon dela aitortzen du, "askotan, batez ere gaztea nintzela. 20-25 urterekin

parranda egiten duzu, gaupasak...". Baina...: "Gure amak beti, 'segitu ezak, ez zaik ezer kostatzen', esaten dit. Badakizu, ama bati ezetz esatea kostatu egiten da; batzuetan esan behar zaio, arrazoirik ez daukanean, baina kostatu egiten da".

Hainbeste urteren buruan fin-fin eustearen arrazoieta sakonduz, "harreman afektiboa" eta "historia sentimental" aipatzen ditu. Eta amaren hitzak, berriro. Pako kanpoan tokatu zeneko asteburu baten ondoren amak esan zion esaldia du gogoan. Igande hartako

mezaz galdetu zionean, organo musikarik gabe eman zen mezaz, "triste, moteil, harriak ere negar egingo likek", esan zion amak. "Eta grazia egin zidan esaldi horrek; hain tristea iruditu zitzaion, musikarik gabe", dio Aristik.

Elizkizunetan parte-hartzearena fedea eragiten dionik ezin esan, behintzat. Atea da Aristi eta meza ere, bere horretan, ez zaizkio gustatzen. "Akartonatuta" gelditu den zeremonia da meza Aristiren aburuz, "Eliza bera gelditu den bezala, gizarte honen aurrean. Normala da umeek alergiaz edukitzea ho-



rrelako gauza bati, ilunpeko mundu horri: dena da beldurra, dena da bekatua, dena da barkamena eskatzea”.

### Maisua eta itzala

Umeak apenas joaten diren mezetara; ezta korura ere, Urrestillan Aristi eta bere belau-naldiko hainbat mutil koskorrek solfoea ikasi eta tiple moduan kantatzen ikasi zuten tokira. Pakoren abizen bera zuen gizonak, Donato Aristik, erakusten zien tipleei. Hura zen Urrestillako organo-jotzailea, hark erakutsi zion Pakori, bost urtez, eta lekukoa utzi zion gero, ofizio-afizioan.

Organoarenganako hurbilketa “halako barruko bultzada batek” eragin ziola azaltzen du Aristik: “Gustatu egiten zitzaidan, batez ere traste hark ateratzen zuen zarata; gauza inpresionante bat da”. Pako berak eskatu zion erakusteko Donatori, etxean ezer esan aurretik; eskolak hartzen hasi eta astebetara esan zuela dio. Gaur egungo joerarekin alderatzen du, “aldreres” izan zela nabarmentzeko: “Gaur egun etxean bultzatzen dituzte umeak hau eta bestea ikastera. Niri, aldreres, inork ez zidan ezer esan, ni neuri okurrituta hasi nintzen. Eta, iruditzen zait bizitzan, luzarora, ondoen funtzionatzen duten gauzak direla zuk zeuk, zeure kasa, hasten dituzun horiek”. Maisu izan zuen Donato Aristirekiko hitz onak ditu. Bost urtez “egunero-egunero” erakusten jardun eta “sekula pezeta bat ez” ziola ko-bratu nabarmentzen du. Ordainketa sinbolikoa “txanpain botila bat eta mazapan kaxa bat edo bi” izaten ziren, gabonetan.

Organoa jotzen ikastea Donato Aristiri zor badio, beste zor bat-edo baduela pentsatzen du Pako Aristik, “izenetik hasita”. Bera jaio zen urte berean hil zen Pako Gurrutxaga; musikaria, Azpeitiko Bandaren zuzendaria,



**1.** Urrestillako koruko organoa jotzen. Hortxe ikasi zuen instrumentua menperatzen. **2.** Herriatik kanpo ere jo izan du, eta gaztetatik. Sopelan hartutako irudia da hau. **3.** Bentzaharreko Mutiko Alaiekin, gaita jotzen.



## Denetarik... ia

Urrestillan inoiz mezetan izan denak badaki, ofertorioan ‘Yesterday’ edo meza irteeran Realaren himnoa berdin-berdin entzun ditzakela. Musika sakroarekin tartekatuta, musika herrikoia. Hori Pako Aristiren ekarpena da, herrikoentzat ohiko zerbait, baina kanpokoentzat harrigarria. Organoarekin denetarik jo izan du elizan –kontzertua ere eman zuen behin, 20 urterekin–. Eta bi kantuk bakarrik, ‘Gernikako Arbola’-k eta ‘leup Lala’-k (Carreroren kantua), sortu dizkiote arazoak. Orain dela 30 urte inguru. Aurrena herriko emakume batek eskatuta jo zuen; bigarrena, bere kabuz erabaki zuen jotzea. Bietan jaso zuen apaizaren ‘tokea’, baina bigarrena bakarrik debekatu zioten. “Debekatu didaten bakarra horixe izan da”.

osaba zuen, tia Feliren gizona. Alargundu ondoren, Feli Aristitarren etxera joan zen bizitzera. “Ni tiarekin jarri ninduten, lotan. Eta pianoa jotzen ikasi nuen, tio Pakok bezala. Ni orain bizi naiz tio Pako eta tia Feli bizi izan ziren etxean bertan. Orduan, ematen du pixka bat segitu dudala Pakoren bidea, ezta?”, kontatzen du.

Organoa jotzen jarraitzen du Pako Aristik, baina bestelako musika jardunak –hainbat tresna daki jotzen– “poliki-poliki uzten” ari da. “Orain beste grina bat sartu zait eta da margotzen ikastea”, dio. Arte horri lotutako liburuak irakurriz eta marrazten ikasiz hasi da, eta gerora badu asmo bat: “Pintore bat badaukat, laguna dudana, Lesakan; egunen batean joango naiz harengana bi hilabete pasatzera, bere estudioan, eta margotzen ikasiko dut, edo behintzat oinarri bat ikasiko dut”. Bepizkundeko gizonen bidetik.\*

**KIRURI**  
K  
**J A T E T X E A**

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Tlfnoa: 943 81 55 08  
Faxa: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

**ase**

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
**matrikula urte guztian zabalik**

**LUBA**

aholkularitza  
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45  
Tel.: 943 15 75 25 Fax: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

**ORDULARI**

Jose de Artetxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Abenduaren 30ean izango dute hitzordua, 18:00tik 21:00era, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak

### ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

## FARMAZIAK (ABENDUA)

### EGUNEZ

1-7-18-25-29	2-8-14-19-20-23-28	9-12-13-15-21-24-26-27-30	4-10-16	5-6-11-17-22-31
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 81 59 74	943 81 12 74	943 08 02 58	943 81 13 50	943 81 19 49


### GAUEZ

1-18-29	2-14-19-20-28	3-8-15-30	4-16	5-6-17-31	9-21-26-27	10-22-23-24-25
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).
943 81 59 74	943 81 12 74	943 08 02 58	943 81 13 50	943 81 19 49	943 85 06 60	943 85 29 89

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOIA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## ▲ KATALOGOA EUSKARAZ.

Gabonen atarian, haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, euskarazko produktuak katalogoa argitaratu du Azpeitiko Euskara Patronatuak. Musika, filmak, liburuak, jostailuak... daude.

## ||| GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak



# BLANCA CARRASCO

banatzailea

“Atea irekitzea izugarri kostatzen zaio jendeari”

Antzerki Topaketetako kartelak jartzen buru-belarri ibili da. Lanean “disfrutatu” egiten duela dio, ordea. 📌 Ainitze Agirrezabala

**Z**enbat urte daramatzen lan honetan, eta nolatan hasi hintzanan?

Duela hamabi urte hasi nindunan. Lanik gabe nengonan eta udaletxean lanik bazegoen galdetuta, banatzaile lana eskaini zidatenan.

**Zeintzuk ditun hire egitekoak?**

Publizitatea banatzeaz arduratzen naun. Pilota partidak direla, ardo dastaketa eguna, antzerki topaketak... Ekitaldi horiek iragartzeko kartelak kalean, paretetan, jartzen ditinagu. Horrez gain, etxe-etxe ko banaketaz ere arduratzen gaitun: *Azpeitian Zer?* aldizkaria hileroko banatzen dinagu. Udaleko edozein sailek idatzitako gutunak edo ikastaroak iragartzeko ateratzen dituen eskuorriak etxe guztietara banatzeaz ere arduratzen gaitun.

**Noiz izaten dun lanik gehiena?**

Garai honetan [azaroran], Euskal Antzerki Topaketak ditun-eta. Gabonetan ere bai, etxe-etxe alkatearen zorion-gutuna banatzen baitinagu. San Inazio festetako programa etxe guztietara banatzea ere lan handia dun.

**Neguan euritan eta hotza pasaz lana egiteak ez din ba gozoa izan behar...**

Ez horixe! Azken bi asteotan, gainera, seku-

lako euririk bota ditin. Lanez aldatu beharko nukeela esaten zidaten, bronkitisarekin gaizki ibiltzen bainaun. Oso langileak eta arduratsuak gaitun eta, inprentatik kartelak berandu ailegatu arren, halako egunerako banatuta egon behar baditen gogor egiten dinagu lana; baita goizeko 05:30ean hasi behar badinagu ere. Baina, egia esan lan honetan disfrutatu egiten dinat.

**Azpeitian bakarrik jartzen al dituzue ekitaldiak iragartzeko kartelak?**

Urola-Kosta osoan jartzen ditinagu, Orio arte; baita Zumarragan eta Urretxun ere.

**Zer-nolako harremanak ditun udaleko politikoekin?**

Hiru alkateak ezagutu ditinat eta ondo moldatu izan naun bai Josemarirekin [Bastida], baita Eizmendirekin ere. Iñaki [Errazkin] eta Xanet [Esnaola] oso jatorrak ditun.

**Jendearrekin gorabeherarik bai?**

Txirrina jo eta jendeari izugarri kostatzen zaio atea irekitzea. Eta, guk debekatuta dugu karrera kanpoan iragarkientzako dauden ontzietan ezer uztea. Baina, ja jendeak ondo ezagutzen gaitu eta ez dugu arazorik izaten.\*



1

1. Blanca Romero. 2., 3. Blanca Romero, ezkerrean, bere lankideekin: Maria Jesus Tejera, Maria del Yugo Frago eta Nagore Blancorekin.



2



3

# Gaudenzio Arregi (eta III)

**A**lbaitari kargua kendu zioten bost urtez, 1936tik 1941era. Bitartean, hainbat lagunek bete zuten herrian albaitari lana. Azpeitian ez ezik Gipuzkoako herri askotan kendu zizkieten albaitariei lanpostuak eta, horiek betetzeko, lehiaketa egin zen. Enrike Zurutuza jabetu zen Azpeitiko lanpostuaz. Herrira heldu eta laster, Gaudenzioren etxera jo zuen. "Gizon egina zen, heldua, deprimিতuta eta triste ikusi nuen... Uste dut nire bisitak on egin ziola, aurreko urteetan herrian egon ziren aldi baterako albaitari haiek ez zioten batere kasurik egiten-eta. Are okerrago, baten batek salaketa jarriko ziola mehatxu ere egin zion". Bi albaitariok ondo hartu zuten elkar, eta laster ziren bata bestearen ondoan lanean ugalketa eta antzutasun arloko ikerketak egiten.

Zurutuzak eta Gaudenziok albaitaritza klinika jarri zuten Villa Consuelitoko beheko solairuan. Era horretakoetan lehenbizikoa Gipuzkoan, Euskal Herrian eta, seguruenara, Espainian. Ugalketa eta antzutasun kasuak aztertu ez ezik, irentzeak, zesareak eta beste-lakoak egin zituzten, eta ikerketak gauzatu, intseminazio artifizialaren arloan, adibidez. 1947rako, arrakasta izan zuten: Landeta-Etxeberri baserriko Joxe Mari Otaegiren behi ordu arte antzua eta Garin baserriko Daniel Olaizolaren *Txordua* izeneko behia izan ziren froga. Prentsa idatzian eta aldizkari espezializatuetan etorri zen Azpeitiko Villa Consuelitoko klinikan Zurutuzak eta Gaudenziok egin zituzten intseminazio saioen berria.

Ondorioz, 1947ko apirilaren lehenengoan, Gipuzkoako diputazioak Zizurkilgo Fraisoro etxaldean lan egiteko kontratatu zuen Gaudenzio, Intseminazioko Oinarrizko Zentroa abiarazteko. 1950eko abenduaren 13an, zentro hartako arduradun izendatu zuten. Bazuen laguntzaile bat: Urrestillako Errekalde baserriko Juan Aizpuru Goenaga...

1954an, Gipuzkoako diputazioak Intseminazio zentro hartako albaitari burua izenda-



|||||||miel a. elustondo|||

|||1959ko urriaren 31ko gauak eraman zuen, Fraisoron bertan lo zegoela. Gaudenzio Arregi Ventura...

tzeko barne lehiaketa martxan jarri zuenean, epaimahaiak kargua propietatean Gaudenziori ematea erabaki zuen. Graduondokoen-tzako katedra bihurtu zuen Fraisoro eta "eskola" sortu zuen. Besteak beste, Alejandro Astigarraga izan zuen ikasle, Azpeititik kanporatu zuen alkatearen semea, albaitaria. "Nik aspaldi barkatu nion eta, gainera, seme-alabek ez dute beren gurasoek egindako okerreren eta gehiegikerien errurik", zioen Gaudenziok.

Zezen zale handia zen. Albaitari lanak egiten zituen Azpeitiko zezenplazan Azkoitiko Elias Ormaza, Zestoako Jose Juan San Juan Laffita eta Azpeitiko Zurutuzaren ondoan...

Behin ere ez zion utzi apirilaren 14a lagunartean ospatzeari.

## Ez zenesnatu

Azkeneko urteetan, esan ohi zuen bihotza geratzen bazitzaion bi kolpe gogor jo eta atzera ibilaraziko zuela. "Okerrena, lotan nagoela gertatzen bazait. Orduan ezingo dut ezer egin, ez naiz-eta konturatuko!". Hala-xe izan. 1959ko urriaren 31ko gauak eraman zuen, Fraisoron, bertan lotan zegoela. Gaudenzio Arregi Ventura...\*





Bergaran **BICIPRECISIÓN IGARTUA** Zubieta kalean 943 76 11 21  
 Sei hilabetetan ordaintzeko, interes barik!

LAPIERRE™



ETOR ZAITEZ  
 PROBATZERA!

www.lapierrebikes.es

cervélo



www.cervelo.com

Errepideko bizikletetan eskaintzak:

	LEHEN	ORAIN
Orbea orca Ultegra	3.980 €	2.290 €
Goka Greenwinch Ultegra 2010	2.560 €	1.549 €
Goka Greenwinch Centaur 2010	2.560 €	1.549 €
Focus Ultegra, cosmic carbono	4.890 €	2.980 €
Focud Ultegra, aksium	2.970 €	1.845 €
Ridley Noah Centaur	4.680 €	2.990 €
Gurpilak Mavic cosmic carbon SL	1.438 €	639 €
Gurpilak X poxed carbono	1.300 €	699 €

	LEHEN	ORAIN
25 kg-ko spinning bicicleta	1.100 €	695 €
Thule bizikleta-eramatekoa	750 €	360 €
Orbea mtb	750 €	475 €
Orbea mtb	390 €	229 €

www.orbea.com

www.flandersfietsen.be

www.kuota.it

www.pinarello.com

www.focus-bikes.com

**LAPIERRE: suspentsio bikoitzeko bizikleta, munduko onenatarikoa!**

horzkari  
 hortz osasun klinika



Osasun Arreta Ziurtagiria  
 duen Euskal Herriko  
 lehengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea  
 20730 azpeitia gipuzkoa  
 t. 943 81 44 50  
 f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com

argi jokatu  
 zure publizitatearekin



uztarrria

Azpeitiko  
 erakusleho handiena

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193  
 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



Kimubat  
 ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



**PACKARD BELL EASYNOTE  
TJ66-AU-567SP**

- Prozesadorea: Celeron Dual-Core T3000 2.1
- RAM Memoria 4 GB
- Disko gogorra: 320 gb
- Pantaila: 15,60
- Tarjeta Grafikoa Intel® GMA 4500M
- S.O.: Windows 7 Home Premium

**540 euro**  
b.e.z. barne



**santi lazcano kirolak**en 30. urteurrena ospatzeko, abenduak 1etik,  
urtarrilak 5a bitartean egindako erosketak, **25 euroko baleen**  
zozketan sartuko dira.